

Udan ere liburutegiak bizirik

Ikasleak apenas, jende gutxiago, giro lasaia, udako opor garaian bestelako irudia izaten dute liburutegiek. Jende askoren ustearen aurka, ordea, erabilgarritasun handia dute udan ere.

Miren Manias. Gasteiz

Udarekin batera heldu ohi da eguraldi ona, eta aire zabalean gozatzea eta eguzki izpiak aprobetxatzea bilatzen du jendeak. Oporrak hartu, eta lantokiko bulegoa, gimnasioa, ingeleseko eskolak, pianokoak nahiz bestelakoak alde batera uzteko garaia izaten da, errutinari ihesbidea. Hala ere, guztiek ez dituzte oporrak izaten, eta liburutegiek, esaterako, ez dituzte ateak ixten. Euskal Herriko liburutegietan erabiltzaileek haien txokoa izaten dute udan ere. Eta ez betiko liburutegietan soilik, igerilekura ere gerturatzen baitituzte, Gasteizko Gamarra igerilekuan jarritako liburutegia kasuko. Aldi berean eguzkiaz eta liburutegiaz gozatzeko aukera dago, beraz, udan.

Liburutegietan nagusitzen den isiltasuna uda partean biderkatzen ote den galdetzen dute askok. Baina, udan liburutegiko giroa lasaiagoa bada ere, beti dago norbait, ziur. Teresa Castro Gasteizko Ignacio Aldecoa liburutegiko arduradunak liburutegiak udan ere martxan daudela dio. Bestelako berezitasun batzuk izaten dituzte, baina bizirik daude: aire girotua, gida turistikoen txokoa, mailegu epearen zabaltzea, udako ordutegi berezia... Eta liburutegiari erabiltzaileek ematen dioten erabilera ere bestelakoa izaten da. Jendeak liburuak maileguan hartzen ditu eta CDak eta DVDak eramaten ditu, baina, orokorrean, ikasturtean baino jende gutxiago geratzen da liburutegian bertan.

Ignacio Aldecoa liburutegiko arduradunak dioenez, jende askok uste du udan liburutegiak hustu egiten direla, eta hori ez da horrela izaten. Badirudi udan bakarrik akordatzen direla gurekin; arratsaldeetan itxi egiten dugu, baina goizetan ireki egiten dugu, abuztuan eta uztailen. Dena dela, inbentarioa egiteko ere baliatzen du uda liburutegietako langileek, eta aste oso bat hartzen dute horretarako.

Liburutegia udan erabiltzen duten bezero gehienak urte osoan ere joaten direla argitu du Teresa Castrok. Liburutegiari ematen zaion erabilera, ordea, beste era batekoa izaten da. Ikasleek oporrak dituztenez, ikasteko prestatutako mahaietan jende gutxiago biltzen da, hemeroteka, aldiz, urte osoan bezala betetzen da. Beharbada, jaietan jende gutxiago dagoela nabari daiteke, baina erabiltzaile kopurua antzekoa izaten da.

Liburutegian bertan geratzen den jende kopurua murrizten da udan. Horregatik, bestelako giroa izaten da, giro lasaiagoa. Ikasle kopuruak behera nabarmen egiten duen arren, eguraldi txarrarekin udalekuetako gaztetxoak irakurtzeko txokoa ikustea ohikoa izaten da. Kanpo ekintzak antolatu eta euria egiten duenerako, liburutegira liburuak irakurtzera joatea izaten dute begiraleek aukeretako bat. Ondorioz, ikasturtean batzuen tokia dena beste

batzuek betetzen dute udan, Castrok esan duenez. Batzuetan alderantziz ere gertatzen dela dio: Eguraldi onarekin askok beste motatako gauzak egitea nahi izaten dute. Eta egun horietan, jende gutxiago etortzen da liburutegira.

MAILEGU EPE MALGUAGOAK

Liburutegiak erabiltzaileari erraztasunak eskaintzen dizkio udan. Liburuak oporretara eraman ahal izateko, adibidez, mailegu epea malguagoa izaten da. Liburutegi askotan, erabiltzaileari oporretara eramango duen liburuaren itzultze data zehazteko aukera eskaintzen diote. Are gehiago, hiru dokumentu mailegatu ahal izatetik, liburutegi askok bost edo sei ale hartzeko aukera ere ematen dute.

Zoritxarrez, ordea, oporretan askok ezin izaten dituzte liburuak bazterrera utzi. Urte osoan asko ikasi ez dutenak izango dira, beharbada. Horiek irailean azterketak izaten dituzte, eta, ondorioz, oporrak ere liburu artean pasatu behar izaten dituzte. Castrok dioenez, udan ikasgelak itxi egiten dituzte eta ikasleak liburutegira etortzen dira ikastera. Horregatik, oporrak amaitu ostean, abuztuko bigarren astetik aurrera, ikasle asko biltzen dira gure liburutegian. Udako giro lasaiaren ondoren, ikasleek liburutegira ekartzen duten bizitasuna eskertzen dute langileek.

KRISTINA EGIA. Aldabe liburutegiko arduraduna Udan liburutegiari ematen zaion erabilera desberdina izaten da

Jende askoren ustearen aurka, udan liburutegiak ez dira jendez husten. Horixe dio Kristina Egiak, Aldabe liburutegiko arduradunak. Hori bai, ikasturtearekin alderatuta, jende desberdina joaten zaie, eta giroa lasaiagoa da.

Liburutegiak udan hustu egiten al dira?

Ez. Beharbada, udan liburutegien hustea topiko bihurtu dela esango nuke. Liburutegian udan ere jendea izaten dugu. Urte osoan liburutegira inoiz etortzen ez den jendea dator. Gehienbat, 40-60 urte bitarteko emakumeak dira. Opor egunak aprobetxatzen dituzte liburuak irakurtzeko.

Baina giroa lasaiagoa al da?

Urte osoan ikasleek txoko guztiak betetzen dituzte, eta udan giroa lasaiagoa da. Baina, beti egoten da norbait irakurtzen edo ikus-entzunezko dokumenturen baten bila. Egia esan, gehienbat jende edadetua egoten da udan.

Lan gutxiago beraz?

Ez pentsa. Hemen beti dugu zerbait egiteko. Dokumentu berriak heltzen dira, eta horiek datu basean sartu behar dira. Garai honetan ere inbentarioa egiten dugu! Egun lasai hauetan urtean pilatutakoa txukuntzen eta eguneratzen saiatzen gara.

Uda partean liburutegiari ematen zaion erabilera desberdina al da?

Badaude beti etortzen diren lau edo bost lagun. Lehen solairuko elkartzetxe aretoan jende asko biltzen da goizeko lehen orduan egunkariak irakurtzen. Liburutegira igotzen dira gero, ordubetez gustuko duten liburua irakurtzeko.

Beste batzuk dokumentuak maileguan hartzera etortzen dira, gida turistikoak, batez ere.

Eguraldiak eragina izaten al du?

Ez pentsa. Eguraldiak ez du zerikusirik izaten. Astearteetan, adibidez, jende asko etortzen da, izugarri. Badirudi astearte liburutegiaren eguna bilakatu dela udan. Gaztetxoan artean eguraldiak eragina izan dezake. Eguraldi ona dagoenean korrika joaten dira igerilekura eta, beharbada, ume gutxiago etortzen da liburutegira.

Erabiltzaileari zerbitzu bereziren bat ematen al zaio udan?

Gida turistikoen mahaia jarri dugu. Oporretara joateko oso baliagarriak dira gidak eta jende askok erabiltzen ditu. Bestalde, sei dokumentu har daitezke maileguan, eta horiek edukitzeko epea malguagoa izaten da, liburuak oporretara eramateko. Horrela, erabiltzaileak dokumentuak itzultzeko data aukera dezake. Liburuak sareko beste liburutegi batean itzultzeko aukera ere badute. Eta igerilekuko liburutegia!

Eta zer da hori?

Gamarrako igerilekuan liburutegi txiki bat zabaltzen dugu udan. Lau edo bost urte daramagu antolatzen eta oso harrera ona izaten du. Askotan, etxean ahazten zaigu liburua, edota ez dugu liburua eramateko ohiturarik. Horregatik, oso eroso izaten da haurrekin igerilekura joan eta, erlaxatzeko, liburu bat hartzeko aukera izatea igerilekuan bertan.

IKASTEN EDO BIDAIA ANTOLATZEN

Liburutegian batzuk ikasten ari dira, beste batzuk, aldiz, bidaia antolatzen. Ikasketak alde batera utzi dituztenek, behintzat, oporretarako bidaia antolatzeko aukera dute. Antolatzen hasita egongo dira asko, beharbada. Izan ere, liburutegietako giroa lasaitzen denean, bidaiak antolatzeko garaia izaten da, eta bidaiatekak horretarako prestatuta daude, bidaia antolatzen laguntzeko.

Bidaiatekak bidaiatzea maite dutenentzat doako udal zerbitzuak dira, eta bidaiak prestatzeko nahi beste informazio lortzeko aukera eskaintzen dute. Oporretarako aukeratutako tokiaren inguruko informazio guztia bildu daiteke; besteak beste, planoak, garraiobideak, ostatuak, bisitatzeko toki interesgarriak, jateko lekuak, jaiak, naturguneak, ibilaldiak... Kirol eta abentura ekintzen berri ere ematen dute.

Nahiz eta urte osoan zabalik dauden, uda partean jende asko joaten da horietara, Mertxe Altuna Gasteizko Bidaiateka bulegoko arduradunak esan duenez: Gabonetan, Aste Santuan eta udan jende asko etortzen da. Sasoi horiek bidaiak antolatzeko uneak dira. Urte osoan baino jende askoz ere gutxiago egoten da liburutegietan.

Gasteizko bidaiatekan, adibidez, zerbitzu berriak daude aurten. Ordenagailuak jarri dituzte, Internet bidez bidaiaren inguruko kontsultak egin ahal izateko, eta liburuak bi egunez etxera eramateko aukera ere ematen dute.